



2025EKO URAREN JAIA ANTOLATZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIAREN KARATULA. EXPEDIENTE ZENBAKIA: 3135

Erregulazio harmonizatuko kontratua	☐ BAI ☒ EZ
Espedientea izapidetzea	☒ Ohikoa, ☐ Urgentea, ☐ Larrialdia, ☐ Aurreratua
Mota	☒ Irekia ☐ Ireki sinplifikatua (SPKLren 159.1 art.) ☐ Ireki super sinplifikatua (SPKLren 159.6 art.)

A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA	
1.- Botere adjudikatzailea:	Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia/ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
2.- Kontratazio-organoa:	☐ Zuzendaritza Batzordea ☐ Presidentea ☒ Gerentea
3.- Kontratuaren arduraduna:	Jesus Maria Moran Salguero
4.- Kontratazio Zuzendariordetzaren harremanetarako datuak:	contratacion@consorciodeaguas.eus Administrazio/teknika arloko kontsultak: 944 873 100
5.- Kontratatzailearen profila:	www.consorciodeaguas.eus https://www.contratacion.euskadi.eus/hasiera/

B.- KONTRATUAREN XEDEA
1.- Kontratuaren xedea:Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren 2025eko Uraren Jaia antolatzeke laguntza teknikoa kontratatzea da honako kontratu honen xedea. 2.- Zer beharri erantzun behar zaien: Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak urtero antolatzen du "Uraren Jaia" izeneko ospakizuna, Bizkaiko herritarren artean uraren erabilera arduratsua bultzatzeko sentsibilizazio eta partaidetza programaren barruan; helburu horrekin, ate irekien jardunaldi bat egiten da herritarrek Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak kontsumoko uren tratamenduan egiten duen lanera hurbiltzeko. Giro ludikoan, Arrigorriagako hiriguneak familia guztientzat jolasak, dibulgaziozko jarduerak eta ekitaldi kultural eta eszenikoak hartzen ditu, 0 eta 14 urte arteko haur eta gazteei bideratutakoak nagusiki. Horrez gain, Beteluriko Edateko Uren Tratamendutegira bisitak ere egiten dira jardunaldian zehar. 3.- Loteka banatzea: ☐ Bai ☒ Ez Loteka ez banatzearen justifikazioa: 2025eko Uraren Jaia antolatzeke zerbitzuen kontratua ez da loteka banatzen, horrela eginez gero kontratuaren funtsa bera ezerezean geratzeko bailitzake. Egun bakarreko iraupena duen ekitaldi baten kudeaketa eta antolaketa zenbait erakunderen artean banatzea garestiagoa eta kaltegarriagoa litzateke Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoarentzat. Are, lizitatzaileentzat ere ez litzateke ekonomikoki bideragarria.
4.- CPV: X 71356200-0 - Deskribapena: Laguntza teknikorako zerbitzuak
5.- Aldaeren edo alternatiben onargarritasuna: ☐ BAI ☒ EZ
6.- Izaera juridikoa ☒ Administratibo ☐ Pribatua



C.- KONTRATUAREN PREZIOA	
1.- Lizitazio-aurrekontua (BEZik gabe)	HIRUROGEITA ZAZPI MILA EURO (67.000,00 €), BEZA ALDE BATERA UTZITA
2.- Kontratuaren balio zenbatetsia: 67.000,00 euro Loteak: ☐ BAI ☒ EZ	
3.- Prezioa zehazteko sistema: ☒ Oroharreko prezioa ☐ Prezio unitarioak	
4.- Urterokoak eta aurrekontu-kontsignazioa: Kontratuaren aurrekontu-urterokoak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa: 920.03-226.03 URTEA: 2025 67.000,00 €	
5.- Prezioen berrikuspena: ☐ BAI ☒ EZ	
6.- Finantzaketa kanpoko funtsekin: ☐ BAI ☒ EZ	
7.- Ordaintzeko modua: Ohikoa. Egiaztagiri bidez.	
8.- Konturako ordainketak: Ez	

D.- KONTRATUAREN EPEA	
1.- Iraupen osoa:	EGUN BAT (1).
2.- Epe partzialak.	☐ BAI ☒ EZ
3.- Luzapena	☐ BAI ☒ EZ
4.- Bermealdia:	EZ DAGOKIO
5.- Kontratua exekutatzeko tokia:	Beteluriko EUT eta Arrigorriagako udalerria.
6.- Lanak zatika jaso daitezke	☒ BAI ☒ EZ.

E.- BERMEAK	
☒ Behin betiko bermea: % 5	Zenbatekoa: Adjudikazioa
☐ Berme osagarria:	Zenbatekoa:

F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA
Urteko negozio-bolumena –aintzat hartuta amaitutako azken hiru urteetan negozio-bolumen handiena izan duen urtea– kontratuaren balio zenbatetsia halako bat eta erdi izan beharko da gutxienez; hau da, 100.500 euro.



G.- KAUDIMEN TEKNIKO ETA PROFESIONALA

Gaitasun tekniko edo profesionala egiaztatzeko, azken hiru urteetan egindako zerbitzuen zerrenda aurkeztu behar da. Zerbitzuok kontratuaren xede direnen antzekoak izan behar dute, eta, zerbitzuon urteko zenbateko metatuak, exekuzio handieneko urtean, kontratuaren urteko batez bestekoaren % 70ekoa edo handiagoa izan behar du; hau da, 46.900 euro.

☒ Enpresa sortu berrien kaudimen teknikoak:

Halako kasuetan, kaudimena egiaztatzeko ez da esperientzia kontuan hartuko. Bai, gainerako eskakizunak.

LANBIDE-GAIKUNTZA

EZ

ENPRESA-SAILKAPENA

ENPRESA-SAILKAPENA ☐ Bai, fakultatiboa ☒ Ez

H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

1.- 1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena.

2.- 2. gutun-azala: Balio-judizioen mende dauden irizpideei buruzko dokumentazioa.

3.- 3. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzeko irizpideei buruzko dokumentazioa.

BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Baldintza Teknikoen Agirian jasotako dokumentazioa, honako xehetasunak barnebildu beharko dituen:

- exekuzioaren memoria tekniko eta metodologia. Bertan, honako jarduerak zehaztu beharko dira, deskribapen eta guzti: jolasak, Beteluriko Edateko Uren Tratamendutegira bisitak, animaziozko jarduerak, tailer didaktikoak eta erakusketak. Jarduera horiek guztiak non eta noiz egingo diren zehaztu beharko da, bai eta zer publikorentzat diren ere. Espazioen eta jardueren dekorazioa eta girotzea deskribatu behar dira, bai eta jaiaren irudia ere.
- Kontratuaren esku jarritako bitarteko teknikoak. Jaian zehar honako azpiegiturak jarriko dira herritarren eskura: komunak, paperontziak, aldagelak, agertokiak, hesiak, haurrentzat guneak, edoskitze-espazioak, haurren aldalekuak, jaio aurreko elikadura... Erabiliko diren giza baliabideen deskribapena egin behar da, zehaztuz langileak nola antolatuko diren, monitoretza-lanak nola egingo diren, ordutegiak edo Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoarekin koordinazio-lanak nork egingo dituen.
- Ingurumen-irizpideak. Antolatutako jolas, tailer eta bestelako jardueretan erabilitako materialak eta bitartekoak deskribatu behar dira, birziklagarriak edo berrerabilgarriak diren zehaztuz. Erabilitako espazioen ingurumen-babesa ziurtatzeko eta jaiaren jardueretan garapen jasagarria sustatzeko neurriak.



AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Proposamen ekonomikoa, lizitatzailerak edo haren ordezkariak sinatua, l. eranskin gisa bildutako ereduaren arabera idatzia ezinbestean, eskaintako prezioan zerga guztiak barne hartuta daudela, BEZa izan ezik.

I.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA

- 1.- Eskaintzak aurkezteko epea: Kontratatzaileraren profilean adierazitakoa
 - 2.- Eskaintzak aurkezteko tokia (AKPAren 13. klausulan ezarritakoa ez beste bat bada soilik):
 - 3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztu behar dira ☒ BAI ☐ EZ
- Eskaintza elektronikoak aurkezteko plataforma elektronikoaren helbidea:
<https://contratacion.consorciodeaguas.eus/site/3?language=eu>

J.- KONTRATAZIO-MAHAIA/ADITUEN BATZORDEA.

☒ Kontratazio-mahaia

Lehendakaria:

☐ Kontratazio-mahaia

Lehendakaria:

Ekaitz Mentxaka Corral jn.

Kideak:

Mikel Magunazelaia Pinaga jn.

Xabier Orue Moro jn.

Itziar Zarate Urrutia and.

Gerardo Latorre Pedret jn.

Jose Manuel Pereda Renobales jn.

Idazkaria:

Gerardo Latorre Pedret jn.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

1.- Adjudikazio-irizpideak:

Baloratu beharreko alderdi gisa lehiaketa esleitzeko oinarri izan behar duten irizpideak honako hauek dira:

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEAK: 50 PUNTU

Irizpide honetan 50 puntu emango dira gehienez.

Eskaintza ekonomikoak eskaintza bakoitzaren baja-ehunekoarekiko (Bi) proportzioan baloratuko dira, honela:

Bmax	50 puntu
$(Bmax + BBB) / 2$	48 puntu
BBB	47 puntu
$0,8 \times BBB$	46 puntu
$0,6 \times BBB$	44 puntu
Lizitazio-aurrekontua.....	0 puntu

Non:



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

- Bi: Eskaintzaren baja-ehunekoa; lizitazio-aurrekontuaren eta eskaintzaren zenbatekoaren arteko aldea zati lizitazio-aurrekontua eginda ateratzen den emaitza, ehunekotan adierazita.
- Bmax: Gehieneko bajaren ehunekoa, eskaintzarik ekonomikoenari dagokiona
- BBB: Batez besteko bajaren ehunekoa, lizitatzailer bakoitzaren baja-ehunekoen batezbesteko aritmetikoaren emaitza

Onartutako gainerako eskaintzen puntuazioa aurretik zehaztutako puntu-banaketa linealki interpolatuta aterako da.

Hori horrela, Bi baja bakoitzari esleitutako Pi puntuazioa honako hau da:

Baldin eta $0 < Bi \leq 0,6 \times BBM$

$$Pi = \frac{Bi}{0,6 \times BBM} \times 44$$

Baldin eta $0,6 \times BBM < Bi \leq 0,8 \times BBM$

$$Pi = 44 + \frac{(Bi - 0,6 \times BBM)}{0,2 \times BBB} \times 2$$

Baldin eta $0,8 \times BBM < Bi \leq BBM$

$$Pi = 46 + \frac{(Bi - 0,8 \times BBM)}{0,2 \times BBB}$$

Baldin eta $BBM < Bi \leq (BBM + Bmax) / 2$

$$Pi = 47 + \frac{(Bi - BBM)}{(Bmax - BBB)} \times 2$$

Baldin eta $(BBM + Bmax) / 2 < Bi \leq Bmax$

$$Pi = 48 + \frac{(2 \times Bi - BBM - Bmax)}{(Bmax - BBB)} \times 2$$

BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEAK: 50 PUNTU

- 1.- Exekuzioaren memoria teknika eta metodologia: 0 eta 30 puntu artean.
- 2.- Kontraturako jarritako baliabide teknikoak: 0 eta 15 puntu artean.
- 3.- Ingurumen-irizpideak: 0 eta 5 puntu artean.

1.- EXEKUZIOAREN MEMORIA TEKNIKA ETA METODOLOGIA: 30 puntu.

- Jardueren memoria:

Lizitatzailerak hurrengo jardueren deskribapena jaso behar duen memoria bat aurkeztu beharko dute:



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

- Jolaserako jarduerak.
- Instalazioetara bisitak.
- Animazioa.
- Tailer didaktikoak eta erakusketak.

Proposatutako jardueren kalitatea, originaltasuna eta aniztasuna baloratuko dira, kontuan hartuta zer lotura duten Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren jarduera nagusiarekin eta erabiltzaileentzat egokiak ote diren (erabiliko dituztenen adina hartuko da aintzat).

- Programazioa: Lizitatzailerik egin beharreko jardueren programazioa proposatu behar dute, ordutegia, iraupena eta nori zuzenduta dauden zehaztuz.
- Kokapena: Proposatutako jarduera eta instalazio guztien kokapena jasotzen duen plano bat aurkeztu behar da.
- Girotze eta dekorazioko programa: lizitatzailerik jarduera eremua girotzeko planteatzen dituzten ekimenak azaldu behar dituzte, bai eta bertan Arrigorriagako Udalaren eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren identifikazio markak nola nabarmenduko dituzten ere.
- Jaiaren irudia: lizitatzailerik proposatutako irudiaren sormen-lana baloratuko da. Proposamenak jardunaldian balioak nabarmendu behar ditu, bai eta aurtengoa festaren 32. edizioa dela ere.

2.- Kontratuaren eskura jartzen diren bitarteko teknikoak: 15 puntu.

- Azpiegitura

Jardunaldian zehar parte-hartzaileen eskura jarriko diren baliabide guztiak zehaztu behar dira, gutxienez honakoak izan beharko direnak:

- WC zerbitzuak
- Paperontziak
- Aldagelak
- Agertokiak
- Hesiak
- Edoskitze-espazioak, haurren aldalekuak eta jaio aurreko elikadura eskaintzen dituzten haurren eremuak

- Giza baliabideen antolaketa:

Egingo den jarduera bakoitzean monitoretza-lanak egingo dituzten langileen antolakuntza deskribatu behar da. Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoarekin koordinazio-lanak egingo dituen arduraduna nor izango den ere zehaztu behar da.

3.- Ingurumen-irizpideak: 5 puntu

Antolatutako jardueretan ingurumen-babesa ziurtatzeko eta garapen jasangarria sustatzeko hartu beharreko neurriak baloratuko dira.

Erabili beharreko materialari dagokionez, material birziklatua izatea baloratuko da, bai eta berrerabiltzeko aukera izatea ere.

2.- Berdinketa hausteko irizpideak:



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

Eskaintza baten baino gehiagoren artean berdinketa jazoz gero, behean adierazitako irizpide sozialak aplikatuko dira berdinketa ebazteko, adierazitako hurrenkeran, eskaintzak aurkezteko epea amaitzean lizitatzailleak duen egoera kontuan izanik:

- a) Enpresetako plantilletatik desgaitasuna duten edo gizarte-bazterketako egoeran dauden langileen ehuneko handiena duena; berdinketa gertatuz gero, plantillan langile desgaitu gehien duena edo plantillan inklusio-neurrien bidez langile gehien duena.
- b) Plantillan aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duen enpresa.
- c) Plantillan emakume enplegatuen ehuneko handiena duen enpresa.
- d) Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa ebatzi ez bada.

3.- Eskaintza anormalki txikitzat jotzeko irizpideak:

Eskaintza anormalki txikitzat joko da honako egoera hauetako batean badago:

- Baldin eta, lizitatzaille bakarra egonik, lizitazioaren oinarritzko aurrekontua baino portzentajezko 25 unitate txikiagoa bada.
- Bi lizitatzaille egonik, beste eskaintza baino portzentajezko 20 unitate txikiagoa dena.
- Hiru lizitatzaille egonik, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko 10 unitate txikiagoak direnak. Nolanahi ere, zenbatekorik handieneko eskaintza ez da kontuan hartuko batezbestekoa zenbatzeko, baldin eta batezbesteko bakarra baino portzentajezko 10 unitate handiagoa bada, ausarkeria-atalase berria finkatzeko baino ez, eta ezarritako sailkapen-hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Dena den, neurrigabetzat joko da portzentajezko 25 unitatetik gorako baja.
- Lau lizitatzaille edo gehiago badaude, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko 10 unitate txikiagoak direnak. Hala ere, haietako eskaintza batzuk batezbestekoa baino portzentajezko 10 unitate baino handiagoak badira, egoera horretan ez dauden eskaintzekin bakarrik egingo da batezbestekoa, ausarkeria-atalase berria finkatzeko baino ez, eta ezarritako sailkapen-hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Nolanahi ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batezbesteko berria zenbatekorik txikieneko hiru eskaintzen gainean kalkulatu da.

Talde bereko enpresek eskaintzak aurkezten badituzte, eskaintzarik txikiena baino ez da kontuan hartuko anormaltasun-presuntzioan dauden eskaintzak identifikatzeko araubidea aplikatzeko, alde batera utzita eskaintza bakarrik edo taldetik kanpoko enpresa batekin edo batzuekin batera, aldi baterako elkarturik, aurkeztu duten.

4.- Lizitatzaileri, hautapen-prozesua jarraitzeko, eskatutako gutxieneko puntuazio-atalasea:

Baztertzeko arrazoia izango da eskaintzaren balorazio teknikoan **25 puntu** gutxienez ez lortzea.

L.- KONTRATUA EXEKUTATZEKO KONDIZIO BEREZIAK

PTPAn zehaztutakoak.

M.- ZIGOR ZEHATZAK

PTPAn adierazitako kasuak eta ekintzak.

N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Arrisku profesionalengatiko erantzukizuneko aseguruia dagoelako egiaztagiria.

Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA

Ez-aplikagarria.

O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

- ☒ Hasieran aurkezteko betebeharra
- ☐ Azpikontratazioaren mugak



O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

Ez

P.- SUBROGAZIOA

Q.- ERREKURTSO BEREZIA

☐ BAI

☒ EZ

BETEBEHARRAK KONTRATUA EXEKUTATU BITARTEAN

Atrakzio puzgarri guzti-guztiek bete beharko dute UNE-EN 14960 araua.

Kontratistaren ordezkaria

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren aurrean koordinazio eta bitartekari lanak egingo dituen pertsona bat izendatu beharko da.